


3.Funtsezko sozietateak

Aliantzarik inportanteena, gure arteko aliantza da. Aimar, bere geologiaren ezagutzarekin, geologia arloaren arduraduna da basaltoaren kalitatea gain begiratzeko. Carmelo, diseinua eta enpresaren efizientziaren ardurapean egongo da. Julen, bere kimika ikasketak, prozesu kimikoen ardurapean egongo da hauen segurtasuna aztertuz. Mikel, enpresen arteko erlazioak lortu eta hobetuko ditu tratu oso onak eskainiz.

Gure proiektua martxan jartzeko, hainbat aliantza egin behar ditugu. Lehenik eta behin energia ez berriztagarriak ekoizten dituzten industriekin sortu behar dugu aliantza sendoa. Haiek emango digutelako behar dugun lehen gaia, kasu honetan, CO₂-a. Industriari lagunduko diogu, hark sortzen dituen gasak murrizteko eta aldi berean behar dugun funtsezko materiala lortuko dugu haiei kobratuz. Geroago, sortutako materiala eraikuntza enpresei salduko diegu, kapital gehiago sortuz. Material hau gure biltegitara eramateko, gure kamioiak erabiliko ditugu. Laborategi eramangarriak mugitzeko eta harriak eraikuntza enpresetara banatzeko, ordea, banaketa enpresa batekin aliantza beharko dugu. CO₂-a harri bihurtzeko basalto hornitzaile batekin kontaktuan jarri beharko gara. Harri mota hau baita CO₂-arekin nahasi behar dena hau egoera solidoa har dezan.

Horrez gain, Bio Ekonomian, Eusko Jaurlaritzako industria garbiak sustatzen dituen programan, parte hartu dezakegu, diru laguntzak edo bestelako laguntzak jasotzeko.



=



Basaltoa

Eraikitze materiala

